

2017-12-26KO OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2017ko abenduaren 26an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Jose Ignacio Imaz Bengoechea , Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2017-11-28).

Udalbatzak 2017ko azaroaren 28ko aktaren zirriborroa onartu du, aho batez.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2017/243 DEKRETUTIK 2017/253 DEKRETURA ARTE.

Alkateak 2017/243 dekretutik 2017/253 dekretura artekoen berri eman dio Udalbatzari.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Mikel Iturbe zinegotziak adierazi du enpresa baten jardueralizentziaren espedientean pertsona batek erreklamazioa jarri duela, eta zer arazo dagoen galdetu du.

Idazkariak erantzun dio erreklamazioan beste gai batzuen artean adierazi duela Irurako Plan Orokorraren 1. aldaketa ilegala zela eta ezin dela lizentzia hori eman. Baina erantzun zaio Hirigintzako Aldaketa hori Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartu zuela eta Aldundiak erantzun behar duela bere baliogabetzeari buruz. Egia esateko, erreklamazioa jarri duen pertsonak Plan Orokorraren espedientean ez zuen bere burua aurkeztu eta Aldundiak ez du erantzun erreklamazio honi buruz. Horregatik erreklamazioak ez du zentzurik.

HIRUGARREN GAIA

2017KO UDAL AURREKONTUAREN 3. KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2017. EKITALDIAREN IRURAKO UDALAREN AURREKONTUAREN 3. KREDITU ALDAKETA.

Udal honen 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren 3. kreditu aldaketaren (3/2017) berri eman da, alkateak proposatutakoa.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusi da.

Hori guztia dela eta, Udalbatzak, aho batez onartu du honako:

ERABAKIA

Lehena.- Behin-behinean onartzea 1/2017 kreditu-aldaketaren espedientea, 2017ko ekonomia-ekitaldiaren aurrekontuarena. Hona hemen laburpena:

A) GASTUEN IGOERA:

Se da cuenta del Expediente de Modificación de Créditos nº 3/2017, del Presupuesto de este Ayuntamiento del ejercicio económico de 2017, propuesta por la Alcaldía.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

Ante ello, La Corporación acuerda, por unanimidad de los presentes, la adopción del siguiente acuerdo:

ACUERDA

Primero.- Aprobar inicialmente del Expediente de Modificación de Créditos nº 3 del Presupuesto del ejercicio económico de 2017, con el siguiente resumen:

+ 42.000 €

Kapitulua/ Partida	Egungo zenbatekoa	Igoera	Guztizkoa
-6. kapitulua			
Partida:			
1.0000.622.342.00.00.2017	0 €	+42.000 €	42.000 €
B) FINANTZAKETA:			42.000 €
B.1.- DIRU SARREREN IGOERA			14.000 €
Kapitulua/ Partida	Egungo zenbatekoa	Igoera	Guztizkoa
7. kapitulua			
Partida:			
2.0000.720.01.	120.000 €	+14.000 €	134.000 €
B.2. GASTUAK			28.000€
MURRIZTEA			
6. kapitulua			
Partida			
601.153.20	286.500	-28.000	258.500

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, erreklamazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Segundo.- Someter el expediente a información pública por el periodo de 15 días hábiles, mediante publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a efectos de reclamaciones.

Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartu dela joko da.

En el caso de que no se presente ninguna, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Halaber, espedientearen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, kapituluka.

Así mismo se deberá publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el resumen por capítulos del expediente.

Hirugarrena.- Horrez gain, eta indarrean dagoen legediarekin bat, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna betetzeari buruzko txosten bat erantsi da, eta, ondorioz, Udaltzari honako hau jakinarazi zaio:

Tercero.- Además y de acuerdo con la legislación vigente, se adjunta informe sobre el cumplimiento de la normativa en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y en consecuencia se comunica al Pleno lo siguiente:

- | | |
|---|--|
| <p>A) 2017ko aurrekontuaren barruan, 3. kreditu-aldaketarako espedientearen proposamenak aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzen ditu.</p> <p>B) Gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da 2017ko aurrekontua likidatzean.</p> | <p>A) Que la Propuesta de Expediente de Modificación de Créditos nº 3 dentro del Presupuesto de 2017 cumple con el objetivo de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera establecidos.</p> <p>B) Que el cumplimiento de la regla de gasto habrá de verificarse en la liquidación del presupuesto de 2017.</p> |
|---|--|

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du frontoiaren ate batean obra lanean ari direla eta ea zer gertatzen den galdetu du.

Alkateak erantzun du konpondu dela irisgarritasun baldintzak betetzeko.

LAUGARREN GAIA

“KALE NAGUSIA 25-29 ETA GI-3650 URBANIZAZIOA” ERABERRITZE PROIEKTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEA.

Udalbatzak onartu egin du, aho batez, “Kale Nagusia 25-29 urbanizazioko eraberritze “ proiektuaren likidazioa: 196.783, 91 eurokoa.

BOSGARREN GAIA

AMETSA PILOTA ELKARTEAREKIN LAN HITZARMENA ONARTZEA 2017-2018 IKASTURTERAKO.

Irurako Udalak xarea suspertu nahi du, eta, horretarako, akordio batera iritsi da Ametsa Pilota Elkartearekin; horren arabera, elkarteak 5 urtetik gorako haur eta gazteei xare-eskolak emango dizkie 2017-2018 ikasturtean, eta ikastaroak eragindako gastuak ordaintzeko, Udalak 5.000 € emango dizkio elkarteari.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hartu du honako:

AKORDIOA

1.-Hitzarmen hori onartzea.

2.-Irurako Udaleko Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkateari baimena ematea hitzarmen hori Udalaren izenean sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

SEIGARREN GAIA

LATS DANTZA TALDEA ELKARTEAREKIN LAN HITZARMENA ONARTZEA 2017-2018 IKASTURTERAKO.

Irurako Udalak euskal dantza suspertu nahi du, eta, horretarako, akordio batera iritsi da Lats Dantza Taldearekin; horren arabera, elkarteak 5 urtetik gorako haur eta gazteei euskal dantzak emango dizkie 2017-2018 ikasturtean, eta ikastaroak eragindako gastuak ordaintzeko, Udalak 3.000 € emango dizkio elkarteari.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hartu du honako:

AKORDIOA

1.-Hitzarmen hori onartzea.

2.-Irurako Udaleko Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkateari baimena ematea hitzarmen hori Udalaren izenean sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

ZAZPIGARREN GAIA

TOLOSALDEKO ATARIA HEDABIDEAREKIN LAN HITZARMENA ONARTZEA 2018-2021 URTEETARAKO.

Alkateak adierazi du ez dela bilerarik egin elkartearekin eta horregatik mahai gainean geratuko dela.

ZORTZIGARREN GAIA

LOATZO MANKOMUNITATEARI 2017KO EKARPENA ONARTZEA.

Irurako Udalak Loatzo Mankomunitatean parte hartzen du eta haren Osoko Bilkuran 2017rako behin betiko ekarpena onartu du: Irurako Udalaren kasuan 54.667,95 euro.

Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

ERABAKIA:

2017rako Loatzo Mankomunitatearen ekarpena onartzea, 54.667,95 eurokoa, eta likidatzea.

BEDERATZIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dira:

A) Alkateak adierazi du zinegotziak konturatuko zirela honezkero udaletxeko balkoiko banderak lekuz aldatu direla. Orain iritsi da horiek beste aldean jartzeko epaitegiaren agindua, banderaren legea ez delako betetzen, eta hori izan da aldaketaren arrazoia.

B) Mikel Iturbe zinegotziak galdetu du nola dagoen San Migel Plazaren pibotaren egoera. Eta galdetu du isunak jartzen diren oraindik.

Alkateak erantzun dio hondatuta jarraitzen duela.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du plazan trafiko asko dagoela eta aspalditik hondatuta dagoela. Nahiz eta pibota ez erabili, autoak sartzeko ordutegia dagoela, baina autoak kontrolik gabe plazan ibiltzen direla eta hori arriskutsua dela umeak jolasean ibiltzen direlako. Eta astero deitu behar zaiola pibotaren mantenua eramaten duen enpresari, konpontze-lanetarako.

C) Olaia Nieto zinegotziak adierazi du udalbatzaren dokumentazioa berandu bidali dela berriro, hots, ostiralean.

Alkateak barkamena eskatu du, eta esan du zenbait arrazoiengatik deialdia eta dokumentazioa berandu bidali direla.

Olaia Nieto zinegotziak eskatu du behintzat deialdia eta dagoen dokumentazioa lehenago bidal daitezela, ostegunean, esaterako.

D) Alkateak zorionak eman nahi dizkie Lore Amenabar andreari, Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketaren 25. edizioan hirugarren geratzeagatik, eta Aitor Mendiluze jaunari, abenduaren hamazazpian ospatu zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean bigarren geratzeagatik.

Eta, amaitzeko, adierazi du Irurako Udalak Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria lortu duela, eta Udaleko langile eta zinegotzi guztiei urtea ondo bukatzea eta hurrengo hobeto hastea opa diela.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak Bikain Ziurtagiriari buruz adierazi du berak ere zorionak eman nahi dizkiela udal-teknikariei, baina ez udal osoari, gobernu berria sartu zenetik euskararen eremuan atzerapausoak eman direlako, eta horren adibide dela euskara eta gaztelania parekatu izana. Udalean euskararen erabilera saritzea bikain dagoela, eta arlo horretan Bildutik PNVra igarotzea atzerapausoa izan dela.

Alkateak erantzun dio berak teknikariarekin hitz egin zuela hizkuntza-erabileraren inguruan eta hark ulertu zuela.

Olaia Nieto zinegotziak erantzun dio teknikariak ez zuela ulertu, errespetatu baizik. Udal-gobernuak agintzen badu euskara eta gaztelera parekatu behar direla, udal-teknikariek horrela egingo dutela. Ildo horretatik, esan du udal-teknikariak gai hau ilusio handiz hartu duela eta

horregatik ziurtagiri hori lortzeagatik zoriondu nahi duela, baina egia esateko tamalgarria dela euskara erabiltzeagatik sari bat ematea.

Alkateak erantzun dio langile guztiak zoriondu behar direla denak pasa direlako Bikain saria onartzen duen tribunalaren aurretik.

Olaia Nieto zinegotziak erantzun dio langile guztiak zoriontzea ondo dagoela, baina ez udal-gobernuari sari hori ematea gaztelera eta euskara parekatu diren momentuan... Udal honek aspalditik lantzen duela euskara eta une honetara iritsi dela lehenago lan handia egin delako, eta lan hori ere zoriondu egin behar dela.

Alkateak erantzun dio ados dagoela dudarik gabe.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du udal-gobernuak belarrietatik tira egitea merezi duela euskara eta gaztelera parekatzeagatik, lehen ez zegoela horrela, eta hori atzerapausoa izan dela. Baina, beste aldetik, Lore Amenabarri eta Aitor Mendiluzeri zorionak eman nahi dizkiela lortu dituzten sariengatik.

OHARRA: eztabaida osoa "www.irura.eus udala-udalbatzak" ezarrita dago.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bilera amaitutzat eman du 19:50ean. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA